

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



BAT aldizkariaren 98. zenbakia Euskaltzaileen Topagunearekin elkarlanean prestatu dugu. Ez da lehen aldia Soziolinguistika Klusterrak horrelako ekimena aurrera eramaten duena, eta, akaso, sarriago ere egiteko moduan izango da aurrerantzean ere. Honakoan, Topagunearekin sinaturiko hitzarmenaren bitartez, erakunde horrek 2016ko urtarrilean antolatu zuen *Euskaltzaileen aktibazioa XXI. Mendean* Topaldiaren inguruan bildu ditugu artikuluak. Izan ere, BAT aldizkariak, bere xedeari jarraiki, Euskal Herrian euskararen soziolinguistikaren inguruan sortzen den ezagutza zabaltzen ahalegintzen da. Eskerrak eman nahi dizkiogu Euskaltzaileen Topaguneari aukera hau emateagatik.

2016ko *Topaldian* izandako hitzaldien inguruko artikuluak honakoak dira:

Lehena, “Euskalgintza eta feminismoa. Identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitzeke proposamen bat”. Artikulu horretan, **Lorea Agirrek** eta **Idurre Eskisabelek** euskararen normalizazioaren eta genero-berdintasunaren arteko antzekotasunak aztertu dituzte, eta prozesu pertsonal, sozial eta politiko modura ikusiz, euskal hiztunaren subordinazioari aurre egiteko feminismoaren diskurtso eta praktikak partekatzea proposatu dute.

Bigaren artikulua **Jasone Mendizabalek** idatzi du “Euskaltzaileen Topaguneko esperientzia arrakastatsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren osagarritasuna” izenburuarekin. Euskaltzaileen mugimendua aktibatzeke, herrietan zein nazio-mailan arrakastarako gaikoak izan daitezkeen elementuak identifikatu nahian, hiru bide definitu ditu: egitearen

erakargarritasuna, eragitearen garrantzia eta horretan guztian jartzen den izana. Tokiko mugimenduen integritatea eta nazio-mailako ekimenen balio erantsia azpimarratu nahi izan du, bi alderdien osagarritasuna aldarrikatzeko.

Iñaki Martinez de Lunak idatzi du “Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena)” artikulua, gaur egungo euskal hiztunen aniztasuna kontuan hartuta, diskurtso berrituak lagungarriak izan daitezkeelakoan. Izan ere, hainbat eta hainbat hiztun berri ez dira hiztun-komunitatearen kide sentitzen, nahiz eta euskaraz hitz egiten jakin. Egilearen iritziz, ingurune euskaldunik ez dute beren egunerokoan, eta “gabezia horien iturburua euskaldun horiek izandako hizkuntza-sozializazioa da”. Bere ustez, euskararen mun-

dua interpretatzeko transmititu diren edukietan ez da hizkuntzarekiko atxikimendurik agertzen. Eta, horregatik, diskurtso berria proposatu beharraren aldarria!

“DiKomA Proiektua. Hizkuntza-ekologiaren Diskurtoaren bidez Komunitatea Ahalmentzen laguntzeko Proiektua” **J. Inazio Markok** eta **Beatriz Akizuk** idatzi duten artikulua bete-betean dator BAT zenbaki honetako gai monografikoarekin, nahiz eta ez den arestian aipaturiko Topaldian aurkeztu. Udallerri-mailan hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta horren bidez hizkuntza-komunitatearen sistema ahalmentzeko buruturiko proiektua izan da honakoa, eta bere emaitza nagusia, dagoeneko ezaguna den EkoLingua Solas-jokoa da. Joko hori, hizkuntza-ekologiaren ezagutzan oinarrituta elkarrizketak pizteko, arrazoibideak lantzeko eta herritarrak argudio berriez jabetzeko baliabidea da; mahai-joko gisa egituratu den eskuhartze-tresna ludikoa.

BAT 98 aldizkariaren GUREAN atalean, 2015eko HAUSNARTU edizioan parte hartu zuen artikulua bat argitaratu dugu, gaur egungo testuinguruan interes berezia duelakoan. Euskal arnaguneen inguruan egiten ari diren hainbat ikerketaren *corpusa* osatzera dator Aiako udalerrian buruturiko honakoa. “Hizkuntzen ahozko erabilera Aiako kalean eta leku publikoetan” izenburupean **Jose Anjel Aldaik** udalerrin horretan egindako ikerketaren berri eman du. Ikerketaren bi-

tartez, egileak hizkuntzen ahozko erabilera zein den neurtu du, azaltzeko, zenbat egiten den euskaraz, gaztelaniaz, edota kode-alternantzia zenbaterainoko indarra duen; aiarraren harreman-sareak, immigrazioak, aisialdiak, etxeko erabilerak eta transmisioaren azken neurketako datuak erkatu ditu bere irakurketa propioa egiteko.

Aritza Eskandonek “Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena” laburbildu du ondorengo artikuluan. Lehenago, gainera, Gasteizko 0 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoen artean euskararen transmisioak eta euskaraz sozializatzeko duten garrantziaz jabetzeko egitasmoa garatu zen. Oraingoan, gurasoak erdigunean jarritz, metodologia kualitatiboa erabiliz, Gasteizko tipologia askotako gurasoen artean eginiko ikerketaren bitartez, hainbat ondorio edo iradokizun egin nah izan ditu egileak.

Munduko Soziolinguistikaren leihoa atalean, **Julia Sallabanken** artikulua eskaini nahi diogu gure irakurleei. Gaurkotasan

handiko gaia dakarki egileak “Hizkuntzaren biziberritzerako politika eraginkorra: nolakoa izan liteke?” artikuluan. Galzorian dauden hizkuntzen inguruan hausnarketa interesgarriak plazaratzen ditu bi ikerketa-kasuotan oinarrituz: Kanaletako uharteak eta Man uhartea (Britainiar uharteen mende dauden gobernu sistema txikiak). Kanaletako uhartean, biziberritze-ahaleginek ez dute oraindik hitzun osorik eman, eta Man uhartean, hizkuntzak gaur egun laguntza publiko handia duen arren, oraindik hizkuntza biziberritzearen iraunkortasunari buruzko zalantza oso handiak daude. “Hizkuntza salbatzeak” zer esan nahi duenaren inguruan hausnartuz, egileraren helburua da emandako ideiak baliagarriak izan daitezen hizkuntzaren biziberritzeak eragiten dien pertsonentzat.

Amaitzeko, liburu-erreseinen atalean, **Asier Barandiaran** irakasleak eginiko idatzia plazaratu dugu, Xabier Irujok eta Iñigo Urrutiak 2013an argitaratu eta -zalantzarik gabe- euskararen soziolinguistikan erreferentziazkoa izango den *Historia juridica de la lengua vasca* liburu trinko bezain interesgarriaren inguruan.

Ikus daitekeenez, esparru desberdinetako lanak ekartzeko moduan izan gara oraingoan: euskalgintza aktibatzekeo ideia berritzaileak, euskararen inguruan diskurtsoa osatzeko behar zehatza, arnaguneetan gertatzen ari den euskararen bilakaeraren inguruko hausnarketa, ingurune erdaldunduetako euskararen transmisioaz, esparru juridikoaren baitan euskarari buruz ezagutu beharreko hainbat datu berri ematen duen erreseina, eta nazioarteko erreferentzia eginez, hizkuntza biziberritzeari buruz Julia Sallabanken artikulua.

Irakurleen interesekoa izango delakoan. •